

Desegoki(tuta)



UXUE APAOLAZA LARREA

railean hasten eta ekainean bukatzen dira, berez, nire zikloak (gure jartzera nindoan, baina plurala erabiltzen dudan bakoitzean ipotx batek oihera egiten dit buruan, "zureak izango dira!"), eta hala izan da nire bizitzan oporrak eduki edo ez, ordutegipeko lan ordaindua eduki edo ez. Ez urtebetetzeak, ez Urteberria, San Juan sua da meditazio aroari hasiera ematen diona. Azken egunetan, inguruan "zer moduz" galdetuta, erantzunak ez ziren lasaigarriak: "Umore txarrez nago duela bi astetatik", "nahiago dut ez pentsatu astelehena iritsi arte"; "antsietatea daukat"; "goragalea". Eta ez da denek uda ona pasa dutela. Eta batzuei, agian, gustatzen zaie beren lana. Batzuentzat, beharbada, lan horixe da beren hutsaltasuna mozorrotzen duen antzerki nagusia. Eta hala ere.

Horri bueltaka, paseoan, oraindik kezkatzen hasi gabe nengoen umea bistan ez edukitzeagatik: bizikletan ibiltzen ikasi du, nik ez daukat, beraz, bat ibilgailuan, bestea oinez ateratzen gara. Abiadura aldean izugarria da, bistatik galzten dut denbora guztian, paseoak, beraz, ez dira jada atsedendaldi kostunbristak, thrillerrak baizik. "Amaaaaa!", eta bi andre korrika auto aparkatu batek estaltzen zidan indar zentrifugo baterantz. Banekien, noski, indar hori nire semea zela. Bizikletaren azpian zegoen, modu arraro batean korapilatuta. Mugitzen ez bazen, minik ez, gera zitekeen horrela, horixe esan nion gainera, "ez mugitu", eta andreei, "ez ukitu" ("a, hemen zaude"). Arazo bakarra zen ezin zuela atera; eta horrek berak itotzen zuen (beste batzuk bizikleta gainean itotzen gara)(ez dut metafora egokia aukeratu, ziur; seguru, irakurle osasuntsu eta ez guztiz zaharra, bizikleta ibilgailu sinpatikoa zaizula oraindik).

Opor ondorengo sindrome bat asmatu ziguten, eta, berez, osasuntsuagoa dirudi gurpilera itzuli nahi ez duen hamsterrak hartara itzultzeko arazorik ez duenak baino. Baina beti gara desegokiak. Desegokiak dira ikasgelan kabituko ez diren haurrak (ea zenbaterik amaitzen duten aruten tratamenduan edo medikatuta ikasgelan kabitzekeo) eta gaztetxoak ("diberti" izeneko ikasgela batere ez dibertigarrian amaitzen dutenak, argi izan dezaten "normalak" ezetz, "nahi ditugun bezalakoak" gutxiago); desegokia da urte gehiegi betetzea; desegokia haurrik ez izatea; desegokia da beste nonbaitetik iristea; desegokia da gaixotzea beti egin duzulako zerbait gaizki gorputza gaixotu bazaizu; pobrea izatea da...

Ea lortzen dugun ahalik eta desegokiaren (eder) jarraitzea, asko zauritu gabe, ekainera arte. ●

